



HAL
open science

Euskararen indarrak eta ahuleziak gaur egun Ipar Euskal Herrian: hizkuntza-bizindarra

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Euskararen indarrak eta ahuleziak gaur egun Ipar Euskal Herrian: hizkuntza-bizindarra. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 2021, Euskararen indar eta ahulezi-printzak Iparraldean, 118, pp.11-25. artxibo-03265363

HAL Id: artxibo-03265363

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-03265363>

Submitted on 24 Jun 2021

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.



Euskararen indarrak eta ahuleziak gaur egun Ipar Euskal Herrian: hizkuntza-bizindarra

Jean-Baptiste Battittu Coyos

Euskaltzaindia

jean-baptiste.coyos@orange.fr

Sarrera data: 2021/02/23 / Onartze-data: 2021/04/12

Laburpena. Artikulu honetan gaur egungo euskararen bizindarra Ipar Euskal Herrian ebaluatzen saiatzen da. Helburu honetarako, ezaugarri eta adierazle sozial anitz sailkatzen dira: euskararen eza-gutza eta erabilera mailak, funtzioak eta erabilera esparruak, hiztunen jarrerak, onarpen publikoa eta botere publikoen politikak, etab. Laburbilduz eta sinplifikatuz, euskararen bizindarra handitzen da, emeki-emeki baldin bada ere. • **Hitz gakoak:** euskara, Ipar Euskal Herria, egoera soziolinguistikoa, hizkuntza-bizindarra, ezaugarriak, adierazleak, eragileak.

Abstract. This paper attempts to assess the current vitality of the Basque language in Iparralde, the French Basque Country. To this end, a range of social indicators and features are classified: levels of knowledge and use of Basque, functions and areas of use, attitudes of Basque-speakers, public acceptance and official policies, etc. In summary, and simplifying, the vitality of Basque is on the rise, though only slowly. • **Key words:** Basque, Iparralde, socio-linguistic situation, living language, features, indicators, actors.

1. SARRERA. ZERTAZ MINTZATZEN GARA? IKUSMOLDE SOZIOLINGUISTIKOA: HIZKUNTZA-BIZINDARRA

I

Artikulu honetan gaur egungo euskararen egoera Ipar Euskal Herrian (IEH) aipatuko dugu, haren aniztasunean, haren gauzatze denak kontuan hartuz, molde eta euskarri denetan, ahozko eta idatzizko erabileran.

Lehenik komeni da azpimarratzea lan honen izenburuan metafora badugula. Hizkuntza bat ez da berez “indartsu” edo “ahula”. Gizartean aztertzen den hizkuntzaren lekua handia edo ttipia izan daiteke, haren funtzioak eta erabilera esparruak murrizak edo zabalak izan daitezke, herritarren jarrerak aldekoak edo aurkakoak, onarpen publikoaren maila gora edo apala, etab. Hau da soziolinguistikaren ikusmoldea, hizkuntza aztertzeko ikuspuntua. Hizkuntza baten egoera ebaluatzeko batzuek haren *bizindar etnolinguistikoa* aztertzen dute. Hona nozio horren definizio bat: “Giza talde etnolinguistiko bati izaki kolektibo gisa eratzeko eta jokatzeko ahala ematen dioten faktore sozial eta estrukturalen multzoa” (Eusko Jaurlaritza 2010: 12).

Hemen anitz ere erabilia den *hizkuntza-bizindarra* nozioa baliatuko dut (*language vitality, vitalité linguistique*), bistan da, beti hizkuntza-komunitate batean gauzatzen dena, gizarte-testuinguru berezi eta soil batean. Hizkuntza-bizindarra hizkuntza komunikaziobide gisa erabiltzen denaren arabera egiaztatzen da, zenbait gizarte-testuingurutan eta zein helburu zehatzekin. Oro har, hizkuntza baten bizindarra neurtzeko, erabilera ezagutza baino garrantzitsuagoa dela ohartzen da.

Bestalde, hizkuntza baten *indarrak* edo *ahuleziak* aztertzen direnean, beste hizkuntza bat(zu)en aldean egiten da gizarte batean, gure kasuan IEHn euskara frantsesaren aldean.

Zergatik euskara Ipar Euskal Herrian aztertzea eta ez bere osotasunean, euskararen lurralde denetan? Bere ezaugarri propioak baititu lurralde honetan, Hego Euskal Herrikoekin (HEH) erkatuz: hizkuntza-legeria, kudeaketa administratiboa eta tokiko botere publikoen ahalmenak, irakaskuntza sistema, etab. ezberdinak dira. Bistan da, ezaugarri hauek eta azterketa-eremu honek euskararen onurako mugaz gaindiko harremanak, lankidetzak eta HEHko ekarpenak baztertzen ez dituzte (ikus 3. atala). Azken hauek ere IEHko euskararen egoera soziolinguistikoaren ezaugarriak dira.

Hizkuntza bat ez da berez “indartsu” edo “ahula”. Gizartean aztertzen den hizkuntzaren lekua handia edo ttipia izan daiteke, haren funtzioak eta erabilera esparruak murrizak edo zabalak izan daitezke, herritarren jarrerak aldekoak edo aurkakoak, onarpen publikoaren maila gora edo apala, etab.

**Oro har,
hizkuntza baten
bizindarra
neurtzeko,
erabilera
ezagutza baino
garrantzitsuagoa
dela ohartzen da.**

Beraz aztertzeko den errealitate soziolinguistiko hori konplexua eta aldakorra da; dimentsio edo aspektu anitzekiko hizkuntza-ekosistema berezi batean gauzatzen dena. Halere helburua, zaila izanik ere, errealitate hori neurtzea edo, bederen, ebaluatzea litzateke. Enpirismoa eta ideologia gainditzen ahalegitea da helburua, bakoitzak bere ikusmoldea baitu, soziolinguistikak, euskal militanteak, euskaldun arruntak edo Iparaldean bizi den euskaldun ez denak.

2. HIZKUNTZA BATEN EGOERA SOZIOLOGIKOAREN EBALUATZEKO TRESNA BATZUK: IRIZPIDEAK ETA ADIERAZLEAK

I

Soziolinguistikan, hizkuntza baten egoera ebaluatzeko eta ahalaz neurtzeko proposatu izan diren irizpideak, adierazleak eta tresnak anitz dira. Hona aipatuenetarik bi.

2.1. Joshua Fishman 1991, 2001: ama-hizkuntzaren transmisioaren garrantzia

J. Fishmanen “Belaunaldi arteko etenaldi eskala graduatua” (*Graded Intergenerational Disruption Scale*) anitz ezagutua da (1991, 2021). Hizkuntza-komunitate bakoitzaren egoeratik abiatuz, hizkuntza mehatxatuen biziberritzeko teoria oso batean kokatzen da 8 etapako eskala hori. Teoria hori hemen laburbiltzeak zentzurik ez du. Halere erran dezagun eskalan seigarren etapa dela erabakigarriena Fishmanen ustez, ama-hizkuntzaren transmisioarena. Etxean, auzo-inguruan eta bizi eremu hurbiletan hizkuntzaren transmisioa da transmisio eraginkorrena eta emankorrena, eskolakoari konparatuz. Ipar Euskal Herriko kasua aztertuz, hau agertuko zaigu 4. atalean.

Hona etxeko erabileraren garrantzitasuna azpimarratzen duen aipamen bat:

“Hizkuntza baten bizindarraren adierazlerik adierazgarriena etxean egun oroz erabiltzea da. Bizindar handiko hizkuntza bat izango litzateke modu zabalean erabiltzen den hizkuntza, bai etxean, bai etxetik kanpo, belaunaldi denetan, eta aipagai denetan ez bada, gehienetan”¹.

2.2. UNESCOren adierazleak 2003: hizkuntza bizindarraren faktore ebaluatiboak

Tresna orokorrago bat, aski erabilgarria, azal dezagun orain. 2003an UNESCOk proposatu zituen hizkuntza baten bizindarraren bederatzi faktore ebaluatiboak hauek dira.

1. faktorea: hizkuntzaren belaunaldien arteko transmisioa;
2. faktorea: hiztunen kopuru absolutua;
3. faktorea: hiztunen proportzioa biztanleria orokorrean;
4. faktorea: hizkuntza erabileraren eremu batzuetan murrizteko joerak;
5. faktorea: eremu berri eta komunikabideei erantzuna;
6. faktorea: material pedagogikoa eta idazketarako sarbidea;

Lehen seiak faktore nagusiak dira (*major evaluative factors of language vitality*).

7. faktorea: gobernuaren eta instituzioen hizkuntza-politikak eta jarrerak, estatutu ofiziala eta haren erabilerarekin;
8. faktorea: hizkuntza-komunitatearen kideen hizkuntza propioarekiko jarrera;
9. faktorea: dokumentazioaren mota eta kalitatea (ene itzulpena).

Faktore ebaluatibo denekin sei arrisku-maila bereiz daitezke (*degrees of endangerment*) eta horien arabera aztertzen den hizkuntza sailkatzen da. Duela hamaika urte, euskararen egoera IEHn aztertu nuen bederatzi faktore hauek ebaluatuz (Coyos 2010). Datozen bi kapituluetan, euskararen oraingo bizindarra ebaluatzeko, faktore hauek berriz aztertuak aurkituko dira, baina ez hauek bakarrik eta ez molde eta ordena haue-tan.

2.3. Hizkuntza-bizindarra ebaluatzea analisi ekonomikoaren bidez

Hona, atal hau bukatzeko, hizkuntza baten bizindarra ebaluatzeko beste ikusmolde bat. Zientzia ekonomikoetan oinarritua da. Soziolinguistikaren ekarpenak ez ditu baztertzen, osatzen ditu.

François Vaillancourt ekonomista eta politika publikoetan adituak aipamen hau egiten du, ikuspuntu ekonomiko baten bidez UNESCOren

**Hona, (...)
hizkuntza baten
bizindarra
ebaluatzeko
beste ikusmolde
bat. Zientzia
ekonomikoetan
oinarritua da.
Soziolinguistikaren
ekarpenak ez ditu
baztertzen, osatzen
ditu.**

**François
Vaillancourt
ekonomista
eta politika
publikoetan
adituak aipamen
hau egiten
du, ikuspuntu
ekonomiko baten
bidez UNESCOren
bederatzi faktore
ebaluatiboak
banatzeko eta
zabaltzeko,
“kapitala” nozioa
baliatuz.**

bederatzi faktore ebaluatiboak banatzeko eta zabaltzeko, *kapitala* nozioa baliatuz:

Hori gehixeago landu daiteke, lau kapital mota garrantzitsu identifikatuz:

- i. kapital demografikoa: kopurua, proportzioa, kontzentrazioa, lurraldea, sortze-tasa, exogamia, immigrazioa eta emigrazioa;
- ii. kapital politikoa: hizkuntza-eskubideak, gobernu-zerbitzuak, hautatuak diren ordezkari kopurua, botere hierarkikoa, *lobbying* ahalmena;
- iii. kapital ekonomikoa: enpresen kontrola eta jabetza, laneko hizkuntza, merkataritzako harremanen hizkuntza, marketinaren hizkuntza, erosteko ahalmena;
- iv. kapital kulturala: hezkuntza-erakundeen kontrola (eskolaurrekoa, eskolakoa, bigarren hezkuntzaren ondokoa eta alfabetatzea), informazio- eta komunikazio-baliabideak eta teknologiak, erlijio-instituzioak, kultura- eta komunitate-zerbitzuak². (Vaillancourt 2021)

Datozen ataletan ez dut ikusmolde hau baliatuko. Halere, uste dut babilio duela hemen aipatzea, Euskal Herrian (hainbeste) ezagutua ez dela susmatzen baitut.

3. “INDARRAK” ERA OROKORREAN – ADIERAZLE BAIKORRAK

I

Lehen eta bigarren ataletan egin ditudan ekarpenak, oharrak eta erreserbak kontuan hartuz, euskararen bizindarraren ezaugarriak eta adierazleak IEHn sailka ditzagun orain. Azalpena aski eskematikoa eta partziala izanen da; baina, halere, euskararen egoera eta aukerak ulertzeko lagungarria izan nahi da.

Indarretan sailkatuko ditugun ezaugarriak maila berekoak ez dira eta gainera sailkapen graduatu batean kokatzeko lirateke (UNESCOK egin duen bezala, 2003), indar hori absolutua ez baita, baina erlatiboa. Alor anitz aztertzeke lirateke, hizkuntza bizi publikoaren eta pribatuaren alor eta funtzio denetan erabilia baita edo erabil daiteke³.

3.1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren alde baiko- rrak. Inpaktua gizartean

Munduan zehar familian guti edo batere transmititu ez diren hizkuntza gutxituen babesteko nahian, irakaskuntza lehen edo tresna bakarria dela ohartzen da. Hori da Ipar Euskal Herrian gertatu dena ere, lehenik euskal elkarte eta militanteen esker edo gero botere publikoen laguntzarekin.

Euskara transmititzeko lehen tresna da orain eta irakaskuntzaren lehen ondorioa belaunaldi gaztearen euskararen ezagutzaren beherakada oztopatzea izan da (ikus hemen 4.1.). Euskaldunen artean, “% 15,7k ez du euskararik eskuratu etxean, eta euskaldun berriak dira. Azken hauek etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian” (Eusko Jaurlaritza 2019: 228)⁴.

Murgiltze ereduaren eragina azpimarrazeko da. Seaskaren ikastetxeetako sarean euskara gutxi gorabehera hizkuntza bakarria da: Iparraldeko *arnasgune*⁵ bat osatzen du, *hizkuntza-oasi* bat. Holakorik guti dira IEHn. Bestalde irakaskuntza horrek alde anitzetako inpaktu baikorra badu gizartean, inpaktu ekonomiko, sozial eta kulturala (Coyos, 2012): euskara irakasle lanpostuak eta klasetik kanpoko langileenak, material pedagogikoaren sortzea (UNESCOren 6. faktorea), euskara irakaskuntza-hizkuntza izatea, euskal kulturaren eta ondarearen ber-balorizazioa, etab. Baina ahuleziak baditu ere irakaskuntza honek (ikus hemen 4. 3.).

3.2. Euskara nagusi bizi sozio-ekonomikoaren alor gutxitan: arnasgune eskasa

Erran bezala murgiltze ereduko ikastetxeek arnasgune bat osatzen dute. Euskal Irratiak Sarean ere euskara hizkuntza bakarria da, kulturaren eta laborantzaren enpresa, elkarte edo gune bakan batzuetan ere. Oro har, arnasguneak zinez guti dira IEHn.

3.3. Euskararen irudia eta onarpena IEHko gizartean

Hemen azalpena labur izanen da eta aski intituiboa. Iduritzen zait euskararen irudia hobetzen dela eta onarpena handitzen dela IEHko gizartean. Azterketa berezirik ez dugu horri buruz, Eusko Jaurlaritzaren ikerketa soziolinguistikoak izan ezik. Hona 2016koaren laburpenean erraten dena Iparraldeaz:

Munduan zehar familian guti edo batere transmititu ez diren hizkuntza gutxituen babesteko nahian, irakaskuntza lehen edo tresna bakarria dela ohartzen da. Hori da Ipar Euskal Herrian gertatu dena ere.

**Orain publikoki
euskararen
kontra mintzatzen
den politikaririk
ez dugu. Eta
honek, euskaren
militateen eta
gizartearen
zati baten
presioarekin
batera, IEHn
indarrean diren
hizkuntza-
-politikak
sortzeko
lagungarri izan
da.**

Biztanleen gehiengoak interes handia erakusten du euskararekiko (%58,5). Irakaskuntzari dagokionez, murgiltze-eredua edo eredu elebiduna hautatzen dutenen ehunekoa, inkesta batetik bestera igotzen doa: 2016an %60, 2011n %53 eta 1996an %40. (...) gehiengo handiak (%93,3) etorkizunean euskaraz eta frantsesez hitz egin beharko litzatekeela uste du... (Eusko Jaurlaritza 2019: 262)

3.4. Euskaldunen atxikimendua euskarari IEHn

Ipar Euskal Herriko gizartea homogenoa ez da, euskara gutxiengoaren hizkuntza da eta gutxitua. Halere azken hamarkada hauetan iduri du euskarari atximendua hobetzen ari dela, erdaldunengan apala baldin bada ere.

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskaldunen %66,7 dago euskararen erabilera sustatzearen alde, euskaldun hartzaileen %52 eta erdaldunen %23,9. (Eusko Jaurlaritza 2019: 256)

Datu baikor hau ere kontuan hartu behar da: guraso erdaldun anitzek beren haurren izena ematen dute euskara ikas dezaten. Hau lehen mailan bereziki frogatzen da: 2020an ikasleen % 41,01ek murgiltze edo paretotasun elebidun erduetan ikasten zuten, ama-eskolan gehiago, erdiak.

3.5. Tokiko botere publikoen jarrera eta politikarien iritzia- ren bilakaera baikorra

Baieztapen hau egiaztatzeko, ikerketa berezirik ez dugu. Beraz ene intuizioa da: tokiko politikarien euskarari buruzko iritzia baikorr(ago)a da. Duela hogeitau urte oraino izan zen bezala, orain publikoki euskararen kontra mintzatzen den politikaririk ez dugu. Euskararen militanteen eta gizartearen zati baten presioarekin batera, IEHn indarrean diren hizkuntza-politikak sortzeko lagungarri izan da (udal batzuetan, Euskararen Erakunde Publikoaren politika-proiektua, Euskal Hirigune Elkargoarena), politika horiek hain eraginkorrak ez baldin badira ere (ikus 4.5).

3.6. Hego Euskal Herriko ekarpenak

HEHaren ondoan izatea biziki lagungarri izan da eta da, eta ez bakarrik corpusaren alorrean, euskararen estatusaren alorrean ere bai, zuzenki edo zeharka. Beste Frantziako lurraldeetako hizkuntza denek xantza hori ez dute.

Ekarpen horiek zerrendatzea hemen luzeegi litzateke, literaturan, medietan edo komunikazio eta informazio teknologia berrietan (UNESCO-ren 5. faktorea), kulturean, etab. Adibidez kontsumo ohiduretan telebista edo irratia baino garrantzitsuagoak dira Internet eta sare sozialak, bereziki belaunaldi gazteengan. Media hauek digitalak baitira muga gainditzen dute eta HEHn egiten den lan emankorra ekarpen handia da (Coyos 2020). Adibidez, Interneten dauden Munduko hizkuntzen % 5etan dugu euskara.

Euskara ofiziala ez baldin bada ere IEHn (ikus 4.6.), HEHko euskararen koofizialtasunak Ipar Euskal Herrian ere zehar-eragina badu. “Haiek bai eta guk zergatik ez?”. Beste legezko modelo bat posible dela erakusten du, Europako politiken eraginarekin batera.

3.7. Estandar bat ukaitea: euskara batua

Hego Euskal Herriko ekarpenei lotuz, mugaz gaindiko euskararen forma estandarra ukaitea, *euskara batua*, “indarretan” sailkatzeko da⁶. UNESCOk ezaugarri hau, estandarra ukaitea, bere bederatzi faktoreetan aipatzen ez du.

4. “AHULEZIAK” ERA OROKORREAN – ADIERAZLE EZKORRAK

4.1. Ezagutza: hizkuntza-gaitasuna - Ezagutzaren eta erabileraren arteko desoreka

Euskararen ezagutza eta erabilera azpiatal berdinean aurkezten ditut, ezagutza erabilerarik gabe balio / interes gutikoa baita. Usu aipatua den hizkuntza gutxituen ezagutzaren eta erabileraren arteko desoreka ageri da.

● Ezagutzari buruzko datu batzuk

“2016n Iparraldean 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 20,5 euskalduna da, % 9,3 euskaldun hartzailea, eta % 70,1 erdalduna” (Eusko Jaurlaritza 2019: 209). Euskaldunen ehunekoa apaltzen da etengabe: “1996an, Iparraldeko euskaldunak %26,4 ziren (...). Euskaldun hartzaileen ehunekoa, aldiz, ez da aldatu: %9,3 zen 1996an” (*ibid.*: 211). Lehen aldikoz euskaldunen zenbaki gordina apaldu ez da (2011n 51.100, 2016an 51.197).

HEHko euskararen koofizialtasunak Ipar Euskal Herrian ere zehar-eragina badu. “Haiek bai eta guk zergatik ez?”. Beste legezko modelo bat posible dela erakusten du, Europako politiken eraginarekin batera.

**Azken hoge
urte hauetan
euskararen
erabilera apaltu
da. (...). Halere,
16-24 urte
bitarteko gazteen
erabilera 25-34
urte bitartekoena
baino handiagoa
da.**

Halere, “16-24 urte bitartekoen %11,3 zen euskalduna duela 20 urte, eta egun ehuneko hori ia 7 puntu handiagoa da. Era berean, 25-34 urte bitartekoen artean ere euskaldunen ehunekoak hazkundera izan du (%13,6 ziren 1996an, eta %15,7 dira 2016an” (*ibid.*: 214). Oraingo ezagutzaren ezaugarri baikor hau 3. atalean sailkatzeko litzateke, “indarren” sailean, hobekuntza hau hain handi ez izanik ere.

● Erabilerari buruzko datuak

Hemen ere xehetasunetan sartu gabe, hona erabilerari buruzko datu orokor batzuk Ipar Euskal Herrian.

(...) biztanleen %18,3k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean: %8,1ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara bezainbeste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean (...) %10,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago. (Eusko Jaurlaritzaren 2019: 238)

Oro har, azken hoge urte hauetan euskararen erabilera apaltu da. “65 urtetik gorako gizon-emakumeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta ehuneko gero eta txikiagoa da adinean behera egin ahala” (*ibid.*: 243). Halere, 16-24 urte bitarteko gazteen erabilera 25-34 urte bitartekoena baino handiagoa da.

Bestalde, hona 2016an Iparraldeko karraketan hizkuntzen ahozko erabileraz datu batzuk: euskara % 5,3, frantsesa % 91,6, beste hizkuntzak (gaztelania barne) % 3,1; Baionan: euskara % 1,9, frantsesa % 93,4, beste hizkuntzak (gaztelania barne) % 4,7 (Soziolinguistika Klusterra 2016).

4.2. Familia-transmisioa: euskara lehen hizkuntza gisa

Ezagutza eta erabilera orokorra bezala, euskararen transmisioa familian apaltzen da Ipar Euskal Herrian:

Azken 20 urteotan etxean euskara soilik eskuratu dutenen ehunekoak 10 puntu baino gehiagoko apaltzea izan du (%26,4 versus %15,9). Euskara eta erdara eskuratu dutenen ehunekoak, ordea, ez du apaltzerik izan, berdintsua baita, gorabeherak gorabehera (%5,2 versus %5,8). (Eusko Jaurlaritzaren 2019: 222)

Eta belaunaldi gazteenetan ehunekoak apalagoa da: “16-24 urte bitartekoen artean, hots, euskara soilik eskuratu dutenen ehunekoak %5,3 da” (*ibid.*: 225). Halere hona datu bat esperantza ematen duena: “Guraso euskaldunek 3-15 urte bitarteko semealabei euskara gehiago transmi-

titu diete(la) 16-34 urte bitartekoei baino” (*ibid.*: 234). Transmisioaren ezaugarri baikor hau, hobekuntza hau, 3. atalean sailkatzeko litzateke, “indarren” sailean.

4.3. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren ahuleziak

Irakaskuntza hau borondatezkoa da eta euskarak gero eta leku txikiago du lehen mailatik bigarren mailara iraganez, halaber bigarren mailatik unibertsitatera: 2020an lehen mailan ikasleen % 41,0 ziren irakaskuntza honetan, kolegioan % 21,72, lizeoan (irakaskuntza orokorra) % 10,097. Laborantza-irakaskuntzak eta irakaskuntza profesional eta teknologikoak euskararen eta euskarazko irakaskuntza zinez guti eskaintzen dute (ikasleen % 0,84). Unibertsitatean, Euskal Ikasketetarik kanpo, euskara hizkuntzak kasik lekurik ez du. Arrazoiak ezagutuak dira: sinplifikatuz, gurasoen eta ikasleen hautuak (bereziki euskararen balio ttipia bizi profesionalerako) eta Hezkuntza nazionalaren ama-eskolatik unibertsitatera irakaskuntza hori garatzeko edo orokortzeko nahigabea.

Bigarren arazoa da hezkuntza sistema horretarik ateratzen diren ikasleen euskara maila eta euskararen erabilera. Biak apalak dira, bereziki parekotasuneko elebidun eredian ibili diren ikasleek.

4.4. Euskara ahula alor sozio-ekonomikoan. Lan-mundua erdaran

Euskarak balio guti du lan bat eskuratzeko IEHn, 3.2. azpiatalean aipatu ditugun eremu sozio-ekonomikoetan salbu. Euskara kapital ekonomiko ttipia da (ikus gorago 2.3., Vaillancourt), baina esperantza argitasun batzuk agertzen dira lan-munduan.

4.5. Hizkuntza-politiken helburu ez aski argiak

Indarrean diren hizkuntza-politika publikoen helburu orokorra zein da? Euskara “salbatzea” (argia da Iparraldeko azken euskalduna XXI. mende honetan desagertuko ez dela), elebitasun orekatura heltzea gizartean, euskara hizkuntza nagusia bilakaraztea (hizkuntza bakarra oraingo mundu modernoan ezinezkoa delarik)? Horri buruz guti badakigu ene ustez.

Euskararen Erakunde Publikoaren hizkuntza politika proiektuak «*Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun*» izenburua du. Bete beharre-

Arrazoiak ezagutuak dira: sinplifikatuz, gurasoen eta ikasleen hautuak (bereziki euskararen balio ttipia bizi profesionalerako) eta Hezkuntza nazionalaren ama-eskolatik unibertsitatera irakaskuntza hori garatzeko edo orokortzeko nahigabea.

**Elebitasun
orekatua lortzea,
adibidez, ez
da batere
frantses Estatu
zentralistaren
helburua.**

ko helburua hau da: “hiztun osoen kopurua emendatzea” - eta estrategia – “belaunaldi gazteengan apostu egitea” (EEP 2006: 15). Sinplifikatuz, ezagutza lehenesten da eta ez erabilera testuinguru denetan, batzuek deitzen duten normalizazioa, ezagutza *sine qua non* baldintza baldin bada ere, bistan da. EEP hori kontuan hartzen hasi da, baina emaitzak, orain arte, begi-bistakoak ez dira.

4.6. Euskararen ofizialtasun gabezia

Espainian ez bezala, Frantziako hizkuntza propioek ofizialtasun izpirik eskuratu ez dute oraino, frantsesak ez ezik, eta legegintza bat baizik ez da, estatuarena. Frantses konstituzioaren 2. artikulua hau dio: «Errepublikaren hizkuntza frantsesa da» (1992)⁽¹⁾ eta 75-1. artikulua: «Eskualdeetako hizkuntzak Frantziaren ondare dira» (2008). Eta geroztik 2. artikulua hori beti baliatu da eskualdeetako hizkuntzen aldeko aitzinamenduak oztopatzeko (...) eta, itxuraz baikorra izanik ere, 75-1a ez da lagungarri izan. (Coyos 2020)

Gabezia hau anitz aipatu eta aztertu izan da. Mementoko, frantses Estatuaren ideologia horri buruz aldatzen ez da⁸.

4.7. Frantses eliteen eta podere publikoen hizkuntza-ideologia eta jarrera - Frantses iritzi publikoa

Ene iduriko, frantses eliteen eta podere publikoen hizkuntza-ideologia eta jarrera ez dira Frantziako eskualdeetako hizkuntzen aldekoak, oro har. Eskualde horietan elebitasun orekatua lortzea, adibidez, ez da batere frantses Estatu zentralistaren helburua.

Halaber, era orokorrean frantses iritzi-egileek, Pariseko media nagusiek eta frantses iritzi publikoak hizkuntza horiek desagertzeko arriskuan direla gogoan hartu ez dute, edo axolarik ez dute, munduko hizkuntzen artean frantsesa arriskuan dela ustez.

4.8. Bilakaera demolinguistikoa

Hona hizkuntza-plangintzarendako eta hizkuntza-politikarendako menperatzeko zaila den parametroa, parametro demolinguistikoa. Ipar Euskal Herriko biztanleria gora doa, etengabe. 2021eko hastapenean 312.754 biztanle baziren⁹. Baina sortze-tasa apala izaten jarraitzen da eta saldo naturala (sortze-heriotza) negatiboa da. Hazkunde demografiko hau kanpotik heltzen diren pertsonen esker gauzatzen da. Biztanleen

% 42,8 IEHtik kanpo sortu dira, % 39,2 Frantzian eta beraz % 3,7 Frantziatik kanpo.

Errealitate horrek eragin zuzena du abian den euskalduntze prozesuan.

5. SAILKATZEKO ZAILAK DIREN ERAGILE SOZIOLOGIKO BATZUK

I

5.1. Hizkuntza-politikarako egitura publikoak

Hizkuntza-politika publikoei buruz ohar batzuk egin ditut jadanik (3.1., 3.5., 4.5.). Politika horiek eramaten dituzten egitura publiko horiei buruz bi hitz erran nahi nituzke.

- Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)

EEPk, 2004an sortuak, urrats garrantzitsuak egin ditu euskararen egoera hobetzeko, hizkuntza politika partekatu bat eramanez (EEP 2006). Alor batzuen garapenean parte hartu du (euskararen eta euskarazko irakaskuntza, euskara teknikarien lanpostuak, euskal elkarten lanaren bermatzea eta profesionalizatzea...). Beste batzuk sortu ditu (euskarazko haurtzaindegiak eta haur ttipien harrera). Baina orain iduritzen zait paper bultzatzaile eta berritzaile hori ahuldu dela. Beharrezkoa den kudeaketa administratiboa da nagusitzen, EEP alor eta ekimen anitzetan sartu baita.

- Euskal Hirigune Elkargoa (EHE)

2017an sortu den EHEren hizkuntza-politika proiektua berria da, 2018koa, eta goizegi da zer ekarriko duen errateko. Dena den, euskara biziberritzeko lankide publiko berri bat da, EEPren lau kide publikoetarik bat, bere politika propioa garatzen hasten dena.

Udalak aipatzeko lirateke ere bai. Denetarik bada, kasik deus egiten ez dutenentarik Biarritz bezalako hirira, hiru euskara teknikari dituen eta politika landu bat garatzen duenera.

5.2. Euskararen aldeko militantzia

Badakigu EEPren eta hizkuntza-politika publikoaren sortzea euskal militantziaren eragina edo ondorioa dela, nagusiki. Azken lauzpabost hamarkada hauetan, euskal elkarte batzuek, euskaltzale ausart eta go-

EEPk, 2004an sortuak, urrats garrantzitsuak egin ditu euskararen egoera hobetzeko, hizkuntza politika partekatu bat eramanez (...). Baina orain iduritzen zait paper bultzatzaile eta berritzaile hori ahuldu dela.

**Azken lauzpabost
hamarkada
hauetan, euskal
elkarte batzuek,
euskaltzale ausart
eta gogotsuek
hizkuntza-politika
eremu zenbait
ideki eta garatu
dituzte.**

gotsuek hizkuntza-politika eremu zenbait ideki eta garatu dituzte: ikas-
tolak (murgiltze ereduarekin, Seaska), helduen euskalduntze eta alfa-
betatzea (AEK), euskarako pedagogia-tresna sortzea edo euskaratzea
(Ikas), euskal irriatiak, euskarazko aisialdiak (Uda Leku), etab. Lan hau
baldintza zailetan eramanik izan zen, baina oro har euskarari buruzko
ikuspegia aldatu du Ipar Euskal Herrian eta gizartearen zati batean eus-
kararen egoera larriaren kontzientzia piztu du.

Orain aktore horiek profesionalizatu dira, bakoitza bere alorrean. Hiz-
kuntza-politika publikoaren eragileak bilakatu dira, eta hori gauza ona
da lanaren eraginkortasuna segurtatzeko eta indartzeko. Baina zaila da,
zaila zait bederen, orain militantzia hau nolakoa den erratea eta inda-
rren kategorian sailkatzea (3. atala). Aldatu da eta iduritzen zait ahulago
dela. IEHn desagertu dela ez dut erranen, AEKk antolatzen duen Korri-
karen arrakasta, edo 2020an, pandemia izanik ere, *Euskaraldia* ekitaldia
edo Hiriburuko ama-eskola elebidun publikoaren aldeko mobilizazioa
ikusiz. Ene iritzia da eta ez zientifikoki ebalatua den errealitate sozial
bat.

6. ONDORIOAK

I

Lan honetan objektibotasuna lortzen saiatu gara, klixek edo aitzinetik
prestik diren formulak baztertzen, soziolinguistikak eskaintzen dizki-
gun tresna batzuk eta Euskal Herrian egiten diren ikerketak baliatuz.

Bukatzeko eta erran dudana laburbiltzeko, zertan da euskara orain Ipar
Euskal Herrian? 2008an egiten nuen egiaztatzea ez da anitz aldatu:

Euskara beharrezko ez den tokiko hizkuntza (da): Iparraldeko gizartean bizi-
tzeko, frantsesa beharrezkoa da bizi publikoan, administrazioetan, lan-mun-
duan, merkataritza-trukeetan, aisialdietan, etab. Nahitaezkoa da, euskara aldiz
ez.” (Coyos 2008: 94)

Halaber 2004an Iñaki Martínez de Lunak eta Ibon Usarraldekin ateratzen
zuten ondorioa, Ipar Euskal Herrian era biziagoan agertzen zaigu ere:

Gure ingurunean argi dago, oro har eremu batzuetako funtzio batzuetarako
izan ezik, erdaren aldeko erakarpen faktoreak askoz indartsuagok dira euska-
rara erakartzen duten faktoreak baino.

Halere, ene iduriko eta oro har, euskararako erakarpen hau handitzen da denborarekin IEHn, euskal militanteen, tokiko botere publikoen eta gizartearen zati baten eraginarengatik. Euskararen bizindarra handitzen da, emeki-emeki baldin bada ere. ●

OHARRAK

1. Ene itzulpena: *The most significant indicator of a language's vitality is its daily use in the home. A language with high vitality would be one that is used extensively both inside and outside the home, by all generations, and for most, if not all, topics.* SIL <https://www.sil.org/language-assessment/language-vitality> [Azken kontsulta: 2021-02-18].
2. <https://francisation.cmec.ca/inc/info/assimilation.htm> [Azken kontsulta: 2021-02-15]. Frantsesetik nik itzulia.
3. Artikulu honetan aztergai ezberdinak laburki azalduko dira, *Bat* aldizkariaren zenbaki honetako beste artikulu batzuetan ez bezala. Hauek, monografikoak izanez, aztergaiak hobekiago eta sakonkiago azaltzen dituzte. Irakurleak haietara jo dezala aipagaia sakontzeko.
4. Ohar epistemologiko ezagutu bat: Eusko Jaurlaritzaren inkesta soziolinguistikoak biziki lagungarriak dira, baina bildu diren datuak inkestatuek aitortuak dira, adieraziak, eta ez errealitatean neurtuak. Aldiz, Soziolinguistika Klusterraren kale-erabileraren neurketek egiazko erabilera aztertzen dute behaketa zuzenaren bidez, baina erabilera-alor zehatz eta murrizt batean bakarrik, ahozkoa karrketan eta plazetan.
5. “Arnasgune hitza erabiltzen da demografikoki euskal hiztun asko biltzen dituzten guneei buruz hitz egiteko. Arnasguneak irudikatzeko modurik errazena udalerrri euskaldunetan pentsatzea da”, <https://eu.wikipedia.org/wiki/Arnasgune> [Azken kontsulta: 2021-02-19].
6. Ikus adibidez Viaut 2010: 22 or. Artikulu horretan Frantzia euskararen, okzitanieraren eta katalanaren egoeraren ezaugarri batzuk aztertzen ditu soziolinguista okzitandarrak, estandarraren ukaitearen onura edo lurralde frantses aldera Espainian duten koofizialtasunak ekarten duen prestigioa, besteak beste.
7. Datuak: *Mediabask* astekaria 2020-11-12, 289. zk., 12. or.
8. Artikulu hau idatzi ondoan, Frantses Legebiltzarrak 2021eko apirilaren 8an eskualdeetako hizkuntzen aldeko lege bat bozkatu du. Nola gauzatuko den errateko goizegi da.
9. Datuak: *Mediabask* astekaria, 2021-02-04, 301. zk., 30. or. Iturria: www.gaindegia.eus.

ERREFERENTZIAK

- COYOS, Jean-Baptiste (2008). Hizkuntza-politika Ipar Euskal Herrian: nondik nora? Ibilbidearen azterketa, in *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 67, Soziolinguistika Klusterra, Andoain: 79-102.
- COYOS, Jean-Baptiste (2010). “Vitalité de la langue selon les critères de l’UNESCO”, in *Basque*, <https://entrelangues.iker.univ-pau.fr/node/13> [Azken kontsulta: 2021-02-15].

- COYOS, Jean-Baptiste (2012). L'enseignement de la langue basque en France. Essai d'évaluation de son impact dans la société, in *L'enseignement des langues vernaculaires : défis linguistiques, méthodologiques et socio-économiques*, Louis-Jacques Dorais eta Abdallah El Mountassir zuz., Paris, L'Harmattan, 17-44.
- COYOS, Jean-Baptiste (2020). "Euskararen estatusa Ipar Euskal Herrian", in *Euskara Eskuz Esku*, Euskaltzaindia. www.euskaltzaindia.eus/eee [Azken kontsulta: 2021-02-15].
- EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA (2006). *Hizkuntza politika proiektua «Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun»*. www.mintzaira.fr/eu/hizkuntza-politika-proiektua.html [Azken kontsulta: 2021-02-15].
- EUSKAL HIRIGUNE ELKARGO (2018). *Euskara jalgi hadi plazara* Euskararen aldeko hizkuntza politika. www.communaute-paysbasque.fr/basque-et-gascon/la-langue-basque/ressources/la-politique-linguistique [Azken kontsulta: 2021-02-15].
- EUSKO JAURLARITZA (2019). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- FISHMAN, Joshua (1991). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon/England, Multilingual Matters.
- FISHMAN, Joshua (2001). *Can Threatened Languages be Saved?*. Clevedon/England, Multilingual Matters.
- MARTINEZ DE LUNA, Iñaki eta USARRALDE, Ibon (2004). *Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar etnolinguistikoa*. www.erabili.eus/zer_berri/berriak/1098278199 [Azken kontsulta: 2021-02-15].
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2016). *Kale erabileraren VII. neurketak 2016*, in *EAS: Euskararen Adierazle Sistema*. www.euskadi.eus/web01-apeusadi/eu/eusadierazle/listaV1.apl?idioma=e&tema=28 [Azken kontsulta: 2021-02-17].
- UNESCO (2003). "4.2. Language Vitality Assessment", in *Language Vitality and Endangerment*. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000183699> [Azken kontsulta: 2021-02-15].
- VAILLANCOURT, François (argitaratzeko). "Vitalité langagière : quelques éléments d'analyse économique", in *Arlo sozioekonomikoa euskararen biziberritzean*, Euskaltzaindiaren XXIV. Jagon jardunaldiaren aktak, Jagon bilduma 22, Bilbo, Euskaltzaindia.
- VIAUT, Alain (2018). "Effets transfrontaliers contrastés sur les orientations glottopolitiques et les représentations de langues minoritaires : les cas du basque et de l'occitan comme illustrations", Jean-Michel Eloy (ed.), in *Collection Carnets d'Atelier de Sociolinguistique*, n° 12, Paris, L'Harmattan, 15-31.